

## 1. TXATXILIPURDIREN GOGOETA

Txatxilipurdi elkartean aspalditik argi daukagu gurasoekin lan egin beharra daukagula. Gure funtzio eta helburua haur eta gazteengan euskararen erabilera handitzea eta honen sustapena egitea den arren, gurasoen bitartez gure helburuetara iritsi gaitezke zuzen-zuzenean. Izan ere, berriz errepikatzen den ideia da, haurren hizkuntza ohituretan zerikusi zuzena dutela gurasoen hizkuntza ohiturek (urteekin lagunarteak espazio hau betetzen duen arren, ukalezina da gurasoen ohiturek haur/gaztetxeoarengan duten eragina).

Txatxilipurdik badu abantaila bat lan hau egiteko orduan, harreman zuzena duela gurasoekin. Txatxilipurdik harreman puntual bat du gurasoekin udalekutan, Txikilandian, tailerretan edota Eguzkilaru egunean. Eta harreman hori ludoteketan jarraia dela esan dezakegu. Gure hezitzaileak egunero aurkitzen dira gurasoekin gune hauetan, hartu emana dute batzurekin eta agurtu besterik ez besteekin, baina ikasturtean zehar gurasoekin koinziditzen dutela esan dezakegu eta egoerak lan egiteko aukera eskaintzen duela. Esparru zabala dugu lan egiteko orduan (auzokako banaketa ere garrantzitsua da, hainbat gunetako gurasoekin harremana izateko zortea dugulako). Esan bezala beraz, aukera polita daukagu gure hizkuntza helburuak ere gurasoekin elkarlanean lantzeko.

Bestalde, gurasoen erronka handia da Txatxilipurdirentzat. Izan ere, talde honekin urte luzeetan harremana eduki dugun arren ez baitugu berariaz lan egin beraiekin. Hots, beti inguruan eduki ditugun arren haur eta gaztetxoengan jarri dugu gure arreta ia kasu gehienetan. Aipatu bezala, elkartearen helburu nagusirako bidean, Arrasateko haur eta gazteengan euskararen erabilera sustatzea, gurasoak pieza garrantzitsua dira, eragin zuzena baitute beren seme-alaben hizkuntzaren ezagutza eta ohituretan. Eredu eta adibide dira gurasoak haurrentzat, eta hizkuntzarekiko ere eredu eta adibide egokiak izatea garrantzitsua da, haurrentzat heldua beti izango da jarraibide, eragile, gizate helduak duen pisua garrantzitsua den bezala. Baina bestalde, Txatxilipurdi elkartearen proiektuko parte diren eina, parte hartzaile edota beraien inplikazioa lortzea ere elkartearen erronken barruan sartzen da. Gurasoak elkartera hurbildu, eta beraiek ere parte aktibo izatea, proiektuaren eraikitzaileak izatea, garrantzitsua deritzogu, babes garrantzitsua izan baitaitezke.

## 2. HELBURUAK

Gurasoen inplikazioa beren seme-alaben hizkuntzaren transmisioan eta Txatxilipurdiren proiektuan.

Beraz esan bezala, bi izango dira proiektu honen helburu nagusiak:

1. Euskararen transmisioan gurasoek duten paperaren garrantzia eta eragina ezagutarazi, beren egoera konketuaren inguruko hausnarketa sortarazi eta guraso bakoitzaren hizkuntza egoerarekiko laguntzak eskaini.
2. Gurasoak elkartera hurbildu eta parte hartze aktibo izateko lehenengo pausuak eman.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1. Transmisioaren helburuari dagokionez

Hizkuntza baten transmisio prozesuan ingurune soziolinguistikoak berebiziko garrantzi eta eragina izan arren, ezin uka dezakegu, familiaren paperak zer esan nabarmena duela prozesu horretan. Argi dago, haurraren ingurunea, eskola eta aisialdia batez ere, euskaraz burutzeko aukera izan ezker, haur horrek errazago eskuratuko dituela euskaraz komunikatzeko gaitasuna eta ohitura, hots, ezagutza eta erabilera. Baina, familia bidez jasotzea da hizkuntza ikasteko modurik natural, aberats, eraginkor, erraz eta merkeena. Haurrak etxean ez baldin badu euskara jasotzeko aukerarik, haur horren hizkuntzaren ezagutza eta erabilera euskara izan dadin, etxetik kanpokoa, hots, bere ingurunea are euskaldunagoa izan beharko da.


Funtzio garrantzitsu hori aitortzen diote familiari hainbat hizkuntzalari eta soziolinguistika adituk, belaunaldi arteko hizkuntza transmisioaren giltza izatearena. “ *Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura*” (Pello Jauregi. *Gazteak eta euskara Lasarte-Orian (II)*, 2004.urtea).

“ *Familiak, etxeko giroak, etxean jasotzen duenak haurrentzat berebiziko garrantzia du. Horregatik haurrak euskara bere hizkuntza izan dezan eta honen aldeko jarrera positiboa izan dezan, familia eta etxeko giroa, giltzarri dira*” (Oarsoaldeko Euskara Batzordea. *Euskararen familia bidezko jarraipenerako plana. 2003-04*)

Aurretik aipatu bezala, euskararen transmisioan funtsezkoa da familiaren papera, izan ere, hizkuntza familia bidez jasotzea da hizkuntzarik ikasteko modurik naturalena, aberatsena, eraginkorrena, errazena eta merkeena.

Haurrarentzat hasiera batetan familia da bere mundu bakarra. Familian hasten da bere nortasuna eraikitzen, sentimendu ezberdinak sentitu eta ulertzen, bere inguruko mundua ezagutu eta

eraikitzen... Afektiboki familia eta bere barnean familia hizkuntza eta norbere garapen emozionala lotua doanez, motibazioa ziurtatuta dago. Afektibitatea eta efektibitatea elkarri lotuta doaz. Gurasoen bitartez seme-alabek hizkuntza jaso, landu (ezagutza), hizkuntza horretan bizi (erabilera) eta hizkuntza hori maite (motibazioa) egingo dute eta familiakoa euren bizitzan etengabe erabili ahal izango dute. Gurasoen eredia oso garrantzitsua da haurrentzat. Hizkuntzaren eta kulturaren ezagutzaren transmisio naturala ziurtatu ezin denean, familiaren jarrerak eta portaerak izugarri baldintza eta lagun dezake hizkuntza horrekiko seme-alabek izan dezaketen atxikimenduan eta baita ere hizkuntza hori garatzeko izan ditzaketen aukeretan.



Euskara lehen hizkuntza bezala eskuratzea oso garrantzitsua izan arren, eta hala da, euskaraz komunikatzeko gaitasun erlatiboa determinatuko duena ez da berez eta nahita nahi ez lehen hizkuntza izango, familia-hizkuntza baizik, etxeko hizkuntza alegia, **bikote-hizkuntzatik** hasita. Bikote-hizkuntzak, bikoteak bere artean erabiltzen duen hizkuntzak definituko du batez ere etxeko hizkuntza. Haurrari euskaraz egin arren, bikotearen artean gaztelera erabiltzen badugu, haurrak euskara haurrentzako hizkuntza soilik dela jaso dezake. Beraz, bikote hizkuntzaren bitartez, familia hizkuntza euskaraz izatea sustatuko dugu eta ondorioz haurraren euskaraz komunikatzeko gaitasunean, hizkuntza ohituretan eta portaeran eragiten dugu.


Bikote-hizkuntzaren ikuspuntutik, bikote guztiak ez dira berdinak, tipologia ezberdinak aurkituko ditugu, eta beharrezkoa da bikote horiek zein egoeratan dauden aztertzea ondoren beraien

behar eta egoerari dagokion helburu eta estrategiak planteatzeko.

Bikote-hizkuntzak duen garrantzia azpimarratu arren, gurasoen esku dauden bestelako hizkuntz ohiturek ere eragina duten aldetik, azalpena eta esku hartzea merezi dutela uste dugu.

**Gurasoek haurrarekin erabiltzen duten hizkuntza** ere garrantzitsua izango da haurrak hizkuntza horrekiko jasoko duen transmisioan.


Bestalde, **gurasoek beren harreman-sare hurbilean erabiltzen duten hizkuntzak** ere berealdiko eragina du hizkuntzaren transmisio horretan; bestelako senide, irakasle, lagun arte, beste haurren gurasoekin.... Gurasoak eredu izatea garrantzitsua baita.



Aurretik aipatu bezala, ingurune sozio-linguistikoak ere eragina izango du haurraren hizkuntza transmisioan eta ingurune horretan, aukerak egon ezker, **gurasoek beren haurraren ingurunean hizkuntza transmisioarekiko hautatzen duen hizkuntza** eredu ere garrantzitsua izango da; hau da, bere eragina izango du ikastetxea euskaraz izatea, eskolaz kanpoko ekintzak (kirola, dantza...), produktu ezberdinak.... euskaraz izatea, aisialdia euskaraz izatea...

Azken finean guraso euskaldunak euskaraz hitz egiten jarri nahi ditugu, euskara izan dadin haurrarekin erabiliko duen hizkuntza, euskaraz bikotekidearekin, euskaraz beren harreman-sare hurbilekoekin eta euskara izan dadila haurraren ingurunean hizkuntza transmisioarekiko hautatutako hizkuntza.


Honekin haurraren hizkuntza transmisioan hain garrantzitsua den gurasoak eredu izatearen garrantzia landuko dugu, bestalde gurasoen hizkuntza ohituretan eragingo dugu eta honek euskal hiztunen unibertsoa zabalduko digu, beste euskaldun batzuk erakartzeko bideak zabalduz.



Bestalde, jakin badakigu, gurasoentzat haurraren hizkuntzaren transmisioa, gaitasun eta erabilera garrantzitsua izanda ere, guraso-mailako, hots, heziketan oinarritutako bestelako beharrak eta kezkek dituztela; beraz gurasoen behar horretan oinarrituz, gurasoen interesa piztu eta hurbilduz, gure helburua, hots, hizkuntzaren transmisioa zeharka/paraleloki lantzea komenigarri ikusten dugu. Beraz, hizkuntzaren transmisiorako estrategia eta ekintzak, hizkuntzan oinarrituak izan arren, gurasoen beharrei erantzuteko gai ere izan behar dira. Oraindik ez dakigu zein ekintza eta estrategia irtengo diren proiektu honetatik, baina gurasoen behar ildo jarraitu beharko dutela argi ikusten dugu.


Aurretik aipatu bezala, Txatxilipurdi elkarteak gurasoak inguruan eduki arren, ez du lanketa berezirik egin talde honekin, haur eta gaztetxoengan jarri dugu gure arreta ia kasu gehienetan. Dena dela, beti pentsatu izan dugu gurasoak ere gure proiektuaren parte direla, eta parte diren heinean, parte hartzaile aktibo izatera sustatu beharko genituzkeela. Proiektu honekin lanketa horri hurbilpen bat ematea da gure nahia eta ditugun zerbitzuen bitartez, gurasoekin dugun harremanak aukera polita eskaintzen duela uste dugu.

Parte hartzeaz hitz egiten dugunean, agente ezberdinak ukitzen dituen gaiei buruzko iritzia emateko, proposamenak egiteko eta erantzule izateko eskaintzen zaion bidez hitz egin behar dugu. Parte hartze mota ezberdinak aurki ditzakegu, entitateak duen sistema, estilo edo jarreraren arabera eta ezberdinean bideratzen diren ezaugarrien arabera direnak; erabiltzaile gisako parte hartzea oinarritzkoena izanik, eta erantzukizuna hartzea parte hartze mailarik handiena izanik. Bi mutur horien artean parte hartzeko modu ezberdinak aurki ditzakegu: iritzia ematea, proposamenak egitea, ekimenak diseinatzen laguntzea, ekimenak lantzea, zerbitzuak kudeatzea, ebaluatzea... Beraz, ikus daiteke testuinguru bakoitzean eta parte har dezaten lortu nahi den taldearen arabera helburu ezberdinak proposa daitezkeela. Azkenik, parte hartzea errazteko eta motibatzeke lortu behar den beste baldintza bat, proposatzen diren helburuak oso handinahiak ez izatea da, horrela parte hartze prozesu luze eta korapilatsuen ondoren ez da frustraziorik sortuko helburuak ez lortzeagatik.



Gaur egun mundu mailan lantzen ari den kontua da parte hartzearen kontua: langileen parte hartzea enpresa eta elkarteetan, herritarren parte hartzea udaletxetan, gurasoen parte hartzea ikastetxeetan, bezeroen parte hartzea komertzioetan... argi dago proiektu, zerbitzu edota eskaintzak arrakasta handiagoa izango duela agente guztien parte hartzearekin, langile, erabiltzaile edota bezeroen ekarpenekin, eurak baitira neurrien onuradun nagusiak.

Elkarte bat garen einean gainera, bazkideetaz hitz egitea beharrezkoa da, bazkideak baitira Elkarteari zentzua ematen diotenak. Eta proiektu hau gurasoetan oinarritu bada ere, gaur egun aurkitzen garen egoerarengatik da, azken helburua guraso horiek bazkide izanik, beraien parte hartze eta babesa lortzea baita.



Bestalde, gure jarduna proiektu hezitzaile euskaldunean oinarritzen denez, hezkuntza integral baten bila joan behar gara uste dugu. Garrantzitsua deritzogu gure hezkuntza proiektuak bat egitea etxean jasotzen den hezkuntzarekin, haurraren garapena orekatuagoa izango baita leku ezberdinetatik jasotzen dituen mezuak bat baldin badatoz eta horretarako gurasoen ekarpenak oso baliagarriak dira.



### 3.3. Esperientzia ezberdinak

#### 3.3.1. Txatxilipurdi elkartean

Txatxilipurdi barnean egon izan dira gurasoen lanketarako proposamen ezberdinak: Guraso txokoa eta Ludotekatik egindako “Gurasoak eta ludoteka” eta “Oparitu denbora”. Ondorengo lerroetan proposamen horien laburpena aurkeztuko dugu.

#### > **Guraso txokoa (Ekin emakumeak elkartearekin batera, 2000.urtean berreskuratua)**

##### 1. Helburu orokorrak:

- Haurrak eta hauen hezitzaileen artean, euskararen normalizazio prozesua garatzeko gunea sortzea
  - Haurren garapen pedagogikoa aberastuko duen gunea izatea
- Hezitzaileentzat, helburu pedagogikoak eta sozialak garatzeko zerbitzua eskaintzea

##### 2. Profesional taldeak

- Proiektuaren lanketa, garapean eta koordinaziorako taldea: proiektugilea + Txatxilipurdi + Ekineko ordezkariak
- Proiektuaren garapenerako eta koordinaziorako lantaldea: adituen taldea + dinamizatzaileen taldea + Koordinazio taldea

##### 3. Hartzaileak: 0-3 urte bitarteko haurren gurasoak

- Adinaren arabera ezberdinketa: 0-12 hilabete eta 1-3urtekoak
- Euskara egoeraren arabera

#### > **Gurasoak eta ludoteka**

Gurasoek ludotekan duten papera aztertu ondoren helburu eta estrategia ezberdinak planteatu ziren.



Helburuak:

- Ludoteka proiektuarekiko atxikimendua lortzea
- Gurasoen inplikazioa lortzea zerbitzu eta proiektu orokorraren inguruan
- Guraso eta elkartearen harreman sarea hobetzea

Estrategiak:

- Informazio sistema egokia bultzatu (horretarako ikasturtean zehar gurasoei informazioa bidaltzeko datak zehazten dira)
- Hitzaldiak: "Nola aukeratu jostailu egokia" (hitzaldi hau Okendo ludotekan antolatu zen eta ez zen inor agertu) ; Guraso erdaldunei zuzendutako hitzaldia (Santamañan antolatu zen eta arrakasta handia izan zuen). Bestelako hitzaldiak ere proposatzen dira: "Haurren elikadura ohituren inguruan" , "Aisialdi birtuala"...
- Ikastaroak: "Euskal kantu eta jolasak", "Jolas ez sexistak", "Jolas kooperatiboak", "Kulturartekotasuna nola landu", "Sukaldaritza hurrekin"....
- Jakinduria konpartitzeko tailerrak: gurasoen baliabideak aprobetxatuz
- Familien txokoa: guraso eta haurrak elkarrekin gauzak konpartitzeko
- Liburuxka bidaiaria: parte hartzea sustatzea eta taldearen ezagutza handiagoa lortzeko
- Laguntza konkretuak eskatuz

> **Oparitu denbora egitasmoa (2006)**

- Zer da: norberearen seme-alabekin, ludotekan, denbora atsegin eta hezitzaile bat eskaini dezaketen gurasoentzat aukera xume bat.
- Ludotekan izatearen garrantzia: gunea, jolaserako material eta beste haur batzuekin topo egiteko aukera.
- Garaia: Gabonetako oporretan eta Aste Santu ondorengo Pazko astean.
- 2 modutara:
  - Ludotekan bertan hezitzaileak egonda eta guraso eta haurrei "tailer" modukoak eskainiaz
  - Hezitzailearen bat egonda baina modu libreago batean utzita, elkarren artean nahi dutena egin dezaten.



### 3.3.2. Eskualde mailan

Debagoieneko Mankomunitatetik euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzeko, idatzi bilduma bat jarri zuten beraien web orrian herritarren eskura. Eguneroko jardunean euskarari toki handiagoa egiteko tresna erabilgarriak dira, eta egunerokotasun horretan guraso eta haurren arteko hizkuntz harremanean zehazki praktikoak diren idatziak aurkitu daitezke, hala nola, gonbita idatziak (merienda, lehen jaunartzea...), zorion agurrak (urtebetetze edo urtemugetan egitekoak, gabonak zoriontzekoak...) eta eskolako idatziak (haurra eskolara joan ez izana azaltzea, eskaera irakasleari...).

Arrasateko ikastetxeek ere hizkuntzaren transmisioan gurasoek duten garrantzia aspalditik ikusi dute eta horretarako gehienbat Arrasateko Euskaletatik bultzatutako hainbat ekimenetan parte hartu dute: 0-5 urte bitarteko haurren kanten bilduma, euskal ereduetan matrikulatu dituztelakoaren zorion gutunak eta DBH bukatu duten ikasleei euskaraz ikasten jarrai dezaten animatuz (aldi berean, ikasle horien gurasoei ere gutuna bidali euren seme-alabei erabakia hartzen lagun ziezaien) eta gurasoentzako ikastaroak antolatuz. Bestalde, ikastetxeek bakarka ere antolatu izan dute hizkuntz jokabideen inguruko hitzaldiren bat edo beste, eta zirkularrak bidali izan dituzte etxetara gurasoentzako hizkuntza aholku batzuekin. Dena dela orokorrean gurasoekin zaila egiten zaie lan egitea, antolatutako ekintzetan parte hartzea oso txikia izan dela komentatu digute.

### 3.3.3. Euskal Herri mailan

Proiektu hau garatzerako orduan, bestelako esperientziak ere ezagutu eta aztertu ditugu. Guztiak aipatu ez arren, hona hemen proiektu honi forma eta edukia emateko erabili ditugun hainbat esperientzia.

Buruntzaldeako esperientzia euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko

helburuarekin sortu zen, hizkuntza ohituretan eragitea, gaiaren garrantzia gizarteratzea eta guraso euskaldunak sentibilizatuz. Gehienbat bikoteko hizkuntza hartzen du oinarri eta gurasoen kezketatik abiatzen da. Bi eta hiru urteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua dago, guraso tipologia ezberdinak banatu ondoren eta bakoitzari bere helburuak



zehaztu ondoren, lehentasuna euskararen ezagutza bai, baina bikotearen artean erabiltzen ez dutenengan jarriz. Ateratako materiala: guraso euskaldunentzako hezkuntza eta hizkuntza inguruko tresna, "Gurasoen liburuxka", eta guraso tipologia ezberdinak kontutan hartuta hizkuntz aholkuak eskaintzen dituen "Aholku liburuxka".

Oarsoaldeko esperientziak ere familia eta etxeko giroa giltzarri harturik, haurrak euskara bere hizkuntza izan dezan eta honen aldeko jarrera positiboa izan dezan helburua dauka. 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei eta guraso izango diren bikoteei zuzendua dago. Bikote euskaldunentzako hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko egitasmo barnean, "Hizkuntza ohiturak aldatzeko tailerra", "Ipuin, kantu eta jolasen ikastaroa" eta "Igandetako irteerak" egongo lirateke; Bikote misto eta erdaldunei begira aldiz, euskarari ahalik eta espazio gehien eskaintzearen garrantzia (eskolaz kanpoko ekintzak eta produktuak) azpimarratzeko hitzaldiak eta "Euskara kurtsoak", Ikastetxeetan hizkuntza jokabideen inguruko aholkuak batzen zituen eskuorrien banaketa eta irratietan hizkuntzaren inguruko kuñak jasotzen zituzten iragarkiak antolatu zituzten.

Sakanan, ere material ezberdina atera dute: "Bi mejor que uno", seme-alabak elebidunak izan daitezen ikastetxeetako hizkuntza ereduen inguruko informazioa eta D ereduan aldeko onurak eta arazorik ezak azpimarratu dira. Bestalde, eskolaz kanpoko eskaintza eta produktuak ere euskaraz aukeratzearen garrantzia eta etxean ere euskara aukeratzearen garrantzia, umearekin nahiz bikotekidearekin; "Euskara bai goxoa" jaioberrien gurasoentzat materiala (foiletoa, haur jolasen zerrenda, autorako eranskailua eta lerre zapia), urte beteko haurren gurasoentzat haurren kanten CD eta haur jolasen eta kanten ikastaroak. Bestalde "Euskarazko produktuen katalogoa" ere atera zuten, aisialdiari berebiziko garrantzia emanez.

Getxo “Sendi Proiektua” dute martxan. Proiektu honen helburu nagusia euskara familietara hurbiltzea da. Euskara gurasoengandik seme-alabengana transmititzeko kanpaina egin zuten, helburu osagarri bezala euskarazko irakaskuntza bultzatzea eta euskararen erabilera bultzatzea eskolaz kanpoko jardueretan. Alde batetik “Euskaraz blai”, 1-2 urteko haurren gurasoentzat uretako mahukatxoa, alkatearen eskutitza eta guraso tipologia araberako euskararen erabilerari buruzko gomendioak bidaltzen zaizkie; “Txikiaz nagusi”: familia giroan euskararen erabilera indartzeko ekintza ezberdinak (txango eta asteburutako egonaldiak...); “Zorionak guraso izateagatik”: guraso izan direnei euskararen



transmisioaren garrantziaren inguruko zorion gutun bat bidaltzen zaie.

Zumaian Zumaia herria aurkeztuz eta gozatzeko hizkuntzaren garrantzia azpimarratuzko kanpaina eta gurasoentzako eskola eman izan dira.

#### **4. GAUR EGUN TXATXILIPURDIK GURASOekin DUEN HARREMANA**

Txatxilipurdik gaur egun badu gurasoekin nolabaiteko harremana, besteak beste, udalekuetan, Txikilandian, tailerretan, Eguzkilarun nahiz gazte sailetik. Baina aurretik aipatu bezala, harreman hori egunerokoa eta jarraia bada, hori ludotekan da, gure hezitzaileak egunero dute kontakturen bat ludotekako bazkideen guraso askorekin.

Txikilandia, tailer eta Eguzkilarun, gurasoekin edukitzen dugun harremana oso puntuala izaten da. Egun jakinetan burutzen dira ekintza hauek eta haurrak bertara ekartzen dutenean eduki dezaketen zalantza edota momentuko harremana izaten da. Gazte saileko Gazte txokoetako erabiltzaileen gurasoekin ere ez daukagu harreman handirik. Konzienteki hartutako erabakia da, izan ere gure hartzaileak gazteak dira eta duten adinarekin, gurasoekin harremana egin ezker, beraien urruntzea eragin dezakegu. Horregatik, guraso hauekin izan dugun harremana beraiek informazioaren bat eskatu izan dutenean egindako guraso bilera eta irteeraren bat egin aurretiko bileretara mugatu da. Bilera hauetara guraso dezente agertu izan dira, beraiek eskatutako bilerak edota irteera batekin lotutako informazioa emateko izan baitira.

Udalekuetan, ireki nahiz itxietan, udaleku aurretik guraso bilerak egiten dira (asistentzia handia izaten da, gurasoen intereserako den zerbitzuaren inguruko informazio zehatza ematen baita), eta udalekuetan zehar ere nolabaiteko harreman puntuala izan arren, ez daukagu harreman berezirik.

Ludotekan ordea guk harremana sortzeko saiakera berezirik gabe, badago bertako hezitzaile eta guraso arteko harreman natural bat. **Zenbat gurasokin hartu emana? Zein adinekoekin gehien? Zer nolako harremana/zertaz hitz egiten da?** Ikasturte



berriarekin batera bilerak egiten dira, eta esan beharra daukagu, asistentziari dagokionez ezberdintasun asko aurkitzen ditugula: Santamairako ludotekan egiten dugun bileran guraso asko agertzen diren bezala (40 guraso) Okendoko ludotekatik 6 guraso besterik ez dira agertzen. Deigarria da ludoteken arteko gurasoen asistentzia ezberdintasun hau, izan ere ludoteketan antolatu diren hitzaldietan ere ezberdintasun hau agertzen da; interesgarria izango litzateke zergaitiak aztertzea. Dena dela, eragina izan dezaketen puntu batzuk aipatu ditzakegu:

- Langileen jarraikortasuna: Santamairako ludotekan urte asko lanean daramatzan hezitzaile bat dugu, gainera guraso askorekin hartu emana du eta konfidantza bat sortuta dago, erreferentzialtasun bat lortu dela esan dezakegu. Honek zerbitzuarekiko bestelako lanketa beharrak azalarazten ditu: hezitzaileen jarraipen eza eta hezitzaileei gurasoen harremanean formazioa.
- Auzo giroa: auzoa izanik, gurasoak beraien artean elkar ezagutzen dute eta harremana dute, elkarrekin bizitza egitera ohituta daudela esan daiteke; ludotekak fisikoki gainera horretarako aukera eskaintzen du, izan ere liburutegia ere bertan dago eta bien artean gurasoak egoteko eta harremantzeko barruko patio bat dago. Auzoa izanik gainera, zerbitzu aldetik ez daudela erdialdea bezain horniturik eta ondorioz gurasoak zerbitzuaren erabilpenaren inguruan ezberdintasunak aurkitzen ditugu, baita zerbitzuaren inguruko mobilizazioa ere ezberdina da, esaterako, hitzaldietan eta guraso bileran. Era naturalean gurasoen bilgune bat da Santamairako ludotekako

patia, honek gurasoekin lanketarako bideak zabaltzen ditu.

Aurretik aipatutako ekintza guzti hauek, zerbitzuekiko informazio puntual bat emateko helburuarekin egiten dira, ez gurasoak euskaraz jarri eta erabilera sustatzeko asmoarekin. Ludoteken kasuan nahiz eta harremana gurasoen aldetik oso pasiboa izan, eta gure aldetik ere harreman hori bideratzeko ahaleginik ez egin, aukerak eskaintzen dituen gune bat dela uste dugu.



## **5. HELBURUEN LANKETA**

Aurretik aipatu bezala, 2 izango dira proiektu honen helburu nagusiak:

1. Euskararen transmisioan gurasoek duten paperaren garrantzia eta eragina ezagutarazi, beren egoera konkretuaren inguruko hausnarketa sortarazi eta guraso bakoitzaren hizkuntza egoerako laguntzak eskaini.

2. Gurasoak elkartera hurbildu eta parte hartze aktibo izateko lehenengo pausuak eman.

**1) Euskararen transmisioan gurasoek duten paperaren garrantzia eta eragina ezagutarazi, beren egoera konkretuaren inguruko hausnarketa sortarazi eta guraso bakoitzaren hizkuntza egoerako laguntzak eskaini.**

Hizkuntzaren transmisioan familia-hizkuntzak, eta hori erabakitze orduan, bikote-hizkuntzak duen garrantzia ikusirik, gurasoei, familia-hizkuntzak eta bikote-hizkuntzak haurren hizkuntza transmisioan duen garrantzia eta eragina ezagutarazi eta beren

egoera konkretuaren inguruko kontzientzia bat bultzatzea izango da gure helburu nagusia. Guraso bakoitzari bere hizkuntza egoerako erronkak, laguntzak, eskaini nahi dizkiogu, garrantzitsuena aurreranzko pausotxoak ematea delako. Bikote-hizkuntzari lehentasuna emanaz, erabilera hori euskaraz sustatzea izango da gure helburu. Horretarako tresna ezberdinak eskainiaz. Bestalde aipatutako bestelako aldagaiak duten eraginaz kontziente, horretan eragiten ere saiatuko gara.

Esan bezala ordea, hizkuntza tipologia ezberdineko gurasoak aurkituko ditugu, eta tipologia bakoitzari helburu zehatza jartzea beharrezkoa ikusten dugu. Horretarako, gurasoen hizkuntza ezagupena eta bikote-hizkuntzaren araberrako tipologia ezberdinak sailkatu ditugu; bestalde, hizkuntzaren transmisioan eragina duten eta gurasoen esku dauden aldagaiak ere zehaztu ditugu, aldagai hauek beti azpimarratu izan dugun gurasoen euskararekiko jarrera neurtzeko baliogarri direla uste dugu. Guzti honekin, hizkuntza tipologia bakoitzerako helburu zehatzak finkatu ditugularik.



### Tipologiak:

A tipoa: gurasoek euskaraz jakin eta beraien artean erabiltzen duten gurasoak

B tipoa: euskaraz jakin bai, baina erabiltzen ez dutenak

C tipoa: gurasoetako batek ez dakienez beraien artean erabiltzen ez dutenak.

D tipoa: gurasoek jakin ez eta, beraz, erabiltzen ez dutenak.

### Aldagaiak:

- Gurasoen euskararen ezagutza
- Gurasoen bikote-hizkuntza
  4. Haurrarekin erabiltzen duten hizkuntza
  5. Gurasoak beren harreman-sarearekin erabiltzen duten hizkuntza
  6. Gurasoek haurraren hizkuntza transmisioan hartutako hautua: eskola, eskolaz kanpoko ekintzak, aisialdia., euskarazko produktuak..



Tipologia bakoitzerako helburu zehatzak

Guztientzako balio duena: Euskararen transmisioan familiaren paperaren garrantzi eta eragina ezagutarazi.

**A tipoa:** Suposatu dezakegu gurasoek beraien artean euskara erabiltzen badute, haurrari ere euskaraz egingo diotela eta jada gure helburu nagusienetako batzuk betetzen dituztela, dena dela bestelako aldagaietan eragin dezakegu eta eragile bihurtu, beste gurasoak euskaraz jartzera sustatuz.

1. beraien harreman sareko hizkuntza ohituretan eragin.
  - horretarako, eredu izatearen garrantzia azpimarratu. Harremanetan behintzat 1.go hitza euskaraz izatea sustatu.
2. Haurraren ingurunean hizkuntz hautua euskara izatea sustatzea
  - dauden aukerak ezagutarazi + euskarazko hautua egitera animatu. eskola, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, euskarazko produktuak (jolasak, ipuinak, tb...)



**B tipoa:** C tipoarekin batera lehentasunezko hartzaile bezala hartuko ditugu. Bikoteko bi kideek euskaraz jakin arren, beraien arteko hizkuntza euskara ez denez, beraien arteko hizkuntza ohitura horretan eragitea izango da gure helburua.

Helburu zehatzak:

1. bikote-hizkuntza ohituretan eragin
  - horretarako, momentu jakin batzuk identifikatu eta horietan euskaraz aritzeko tresnak eskainiko dizkiegu. Bikote-hizkuntzan aldaketa bat ematen saiatuko gara, lehenengo pausua, hortik egoera orokortu ahal izateko.
2. haurrarekin kasu guztietan euskararen erailpena sustatu
  - horretarako, haurrarekin zein kasutan ez duten euskara erabiltzen aztertu eta zailtasun horietarako tresnak eskainiko dizkiegu.
3. beraien harreman sareko hizkuntza ohituretan eragin.

- horretarako, eredu izatearen garrantzia azpimarratu. Harremanetan behintzat 1.go hitza euskaraz izatea sustatu.

4. Haurraren ingurunean hizkuntz hautua euskara izatea sustatzea

- dauden aukerak ezagutarazi + euskarazko hautua egitera animatu. eskola, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, euskarazko produktuak (jolasak, ipuinak, tb...)

**C tipoa:** Transmisioan familiaren paperaren garrantzia ezagutzera eman.

1. euskararen transmisioan bikote-hizkuntzaren garrantzi eta eragina ezagutarazi.

Nahiz eta ez jakin, baloratzen eta transmititzearen garrantzia

2. bikote-hizkuntza ohituretan eragiten hasi.

- horretarako, momentu jakin batzuk identifikatu eta horietan euskaraz aritzeko tresnak eskainiko dizkiegu, batez ere haurra aurrean dauden momentuak hartuko ditugu.

1. haurrarekin euskararen erabilpena sustatu. Euskaraz dakien kideak kasu guztietan haurrari euskaraz egitea, euskaraz ez dakien kideari aldiz, haurrarekin momentu jakin batzuetan euskaraz egiteko tresnak eskaini. Beraz, lehenengo kasuan, haurrarekin kasuren batetan euskaraz egiteko dituen zailtasunak identifikatu eta horretara estrategiak eskaini; bigarren kasuan haurrarekin euskaraz ezin egitearen ezintasun hori erlatibizatu



eta eduki dezakeen frustrazioak desagerrarazi eta horretarako momentu jakin batzuk zehaztu eta horietan euskaraz aritzeko tresnak eskaini.

4. Haurraren ingurunean hizkuntz hautua euskara izatea sustatzea

- dauden aukerak ezagutarazi + euskarazko hautua egitera animatu. Batez ere etxean euskara jasotzen ez duten haurren euskararen transmisioak guzti honek duen garrantzia azpimarratu, eskola, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, euskarazko produktuak (jolasak, ipuinak, etab...)

**D tipoa:** Transmisioan familiaren paperaren garrantzia ezagutarazi.

1. euskararen transmisioan familiaren garrantzi eta eragina ezagutarazi. Nahiz eta ez jakin, baloratzen eta transmititzearen garrantzia.


2. Haurrarekin duten harremanean euskararen erabilera sustatu. haurrarekin

euskaraz ezin egitearen ezintasun hori erlatibizatu eta eduki dezakeen frustrazioak desagerrarazi.


- Haurrarekin momentu jakin batzuetan euskaraz egiteko tresnak eskaini.


**3. Haurraren ingurunean hizkuntz hautua euskara izatea sustatzea**

- dauden aukerak ezagutarazi + euskarazko hautua egitera animatu. Batez ere etxean euskara jasotzen ez duten haurren euskararen transmisioak guzti honek duen garrantzia azpimarratu, eskola, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, euskarazko produktuak (jolasak, ipuinak, etab...)



**Bikote- hizkuntzan eragin**





- Familiaren garrantzia ezagutarazi
- Haurrerekiko harremanean euskara sustatu
- Haurraren ingurunean hautuan eragin

## 2) Gurasoak elkartera hurbildu eta parte hartze aktibo izateko lehenengo pausuak eman

Aurretik aipatu bezala Txatxilipurdi barnean gurasoen lanketarako proposamen ezberdinak egin izan dira, ondorengo lerroetan Txatxilipurdi barneko langile, Zuzendaritza Batzorde eta bestelako eragileen artean egindako eztabaidaren hausnarketa hartu dugu kontutan. Hausnarketa hau guraso eta bazkideei begira eginikoa da, bien artean helburu edota lanketa ezberdindurik egiten ez delarik. Proiektu hau ordea gurasoei zuzendurikoa den heinean, beraiei begira izango dira helburu eta lanketak.

Aipamen txiki bat bazkideen kontuari. ATEA mailan ere bazkideekin lan egitea ikusten da. Dena dela, hortik oraindik urrun gauden heinean eta gurasoekin Txatxilipurdik nolabaiteko harremana duenez, lehenengo hartzaileak, hurbilpena gurasoekin egitea ikusten dugu.

Zuzendaritza guraso/bazkideekin egin beharreko lanketari dagokionean, aurretiaz hainbat faktore edo kontu hartu behar dira kontuan. Hona hemen identifikatutako faktoreak:



1. Nahiz eta guretzat zaila den irudikatzen, erabiltzaile diren gurasoen ehuneko handi bat ez da elkarteko bazkide. Dena dela ludotekako bazkide dira eta beti izango dute ateak zabalik elkarteko bazkide izateko.
2. Guraso askok zerbitzu soil gisa ikusten dituzte Txatxilipurdiren ekintzak
3. Bazkide gabe elkarrekin ez du zentzurik
4. Guraso euskaldun/erdaldunak egon arren, denei begira helburu berak egon behar dira. Dena den, helburu bera edukitzeak ez du esan nahi lanketa bera izan behar denik guraso guztiei begira.

Guraso/ bazkideei dagokionez, definitu ere egin zituzten:

- Elkartearen proiektuaren babesleak izan behar dira.
- Elkartearen zeregina definitu behar dute
- Elkartearen norabidea eta egitasmoak onartu behar dituzte
- Elkartearen sortzaileak izan behar dira.

Finkatutako HELBURU NAGUSIAK:

1. Gurasoen euskararen erabilera sustatzea, gurasoak euskaraz jartzea.
2. Gurasoak Txatxilipurdiren proiektura hurbiltzea
3. Gurasoek Txatxilipurdik ematen dituen zerbitzuak Txatxilipurdi Elkartearekin erlazionatzea, euskara elkarte gisara.
4. Gurasoek Txatxilipurdirekiko harremanak eta konfiantza garatzea. Gurasoak proiektuaren babesle gisa ikustea.
5. Gurasoen eta haurren baitako (euskarazko) zerbitzua izateko euren laguntza ezinbestekoa dela ohartaraztea. Elkartean bazkide izan eta antolakuntzan parte hartuz gero hitza eta erabakia euren dela ezagutzea.
6. Gurasoak euren zerbitzuaren izaera hezitzaileaz ohartaraztea, eurak ere euskal erreferentziak lantzeko izan dezaketen potentzial hezitzaileaz ohartaraziz.
7. Gurasoak haien seme alaben hizkuntza garapenean duten garrantziaz konturatzea
8. Gurasoak beraien seme- alabek euskaraz bizitzeko duten eskubideaz jabetzea.



Helburu nagusiak hauek izan arren, aurretik aipatu bezala gaur egun gurasoekin dugun harremana helburu hauetatik oso urruti dago, eta beraz norabide horretan, garrantzitsua izango da ibilbidea, pausuak zehaztea. Epe luzeko helburuak direnez, proiektu honekin batera gurasoekin egin beharreko lana definitzea garrantzitsua deritzogu, proiektu honekin helburu bezala gurasoen hurbilpen bat bilatzea dugularik.

Guraso/bazkideei begira dauden helburuak betetzeko egin beharreko LANKETA:

- Arlo afektiboa landu behar da.

- Guraso bileretan bazkidetza bultzatu behar da
- Gurasoekin loturak sortzeko, beren beharretatik abiatu behar dugu: aisia gaur egun behar garrantzitsua da gurasoentzako, kezka handia dute gai honen inguruan. Txatxilik aisia eskaintzen du eta gainera euskaraz. Aisia izan behar da loturak sortzeko abiapuntua.
- Aisia euskaraz eskaintzeaz gainera, kontzientziazioa ere landu behar da gurasoekin.
- Guraso berriengana heldu behar da.
- Erabiltzaile diren gurasoekin lanketa berezia egin behar da.
- Guraso erdaldunekin lanketa bat egin behar da, jabetu daitezen haien seme-alabek euskaraz bizitzeko aukera dutela.
- Guraso erdaldunekin lanketa bat egin behar da, haien seme-alaben integrazioan aisialdiak (Txatxilipurdik) eman diezaiekeen laguntzaz jabetu daitezen.
- Guraso erdaldunekin lanketa bat egin behar da, umearen garapen orekatuan (nortasuna finkatzeko) eta etorkizunean (lana izateko) euskaldun eleanitzak izateak duen garrantziaz ohartarazteko.

\* Erabiltzaileak diren gurasoekin egin beharreko lanketaren inguruan hitz egin arren, Txatxilipurdik eskaintzen dituen zerbitzuen hobekuntzara begira, erabiltzaile ez direnek zer esan handia dutela ez dugu ahaztu behar. Interesgarria izango litzateke erabiltzaile ez direnen artean kale neurketa sakon bat egitea, ludotekak eta Txatxilipurik orokorrean zer nolako sentazioak sortzen dizkion, zergaitik ez duen bere seme-alaba ludoteka edota Txikilandiara eramaten.... jasotako informazioa hobekuntzetarako oso baliagarria izan daitekeela kontutan edukitzea garrantzitsua da.



Bestalde, gurasoak Elkartearekiko harremanean egoera ezberdinetan daudenez, guraso mota ezberdinak aurkitu ditzakegu, eta, helburu nagusiak berdinak izan arren, helburu zehatz ezberdinetatik hastea komenigarri ikusten dugu. Gurasoak bi tipotan banatu ditugu:


- 1.- Jada harreman puntual edota elkartearekiko hurbilago dauden gurasoak
- 2.- Elkartearekin, zerbitzuaren inguruko harremana soilik duten gurasoak

1.- Jada harreman puntual edota elkartearekiko hurbilago dauden gurasoak

Inoiz bildu eta lanketa zehatzik egin ez dugun arren, badaude elkartearekiko hurbilago dauden gurasoak, bazkide direlako eta zenbaitetan/noizbaiten ludotekako proiektu hezitzailearen inguruko informazioarekiko interesa erakutsi dutelako, Txatxilipurdi edota AED-ko langile ohiak direlako, euskalgintza munduan mugitu direlako, harreman pertsonalak mantentzen ditugulako... Hauekin beraz hurbilpen bat baino beste pausu bat gehiago emateko prest gaudela ikusten dugu. Jada Txatxilipurdik kudeatzen dituen zerbitzu eta ekintza ezberdinak Txatxilipurdi Elkartearekin erlazionatzen dutela esan dezakegu, euskara elkarte gisara, beraz bestelako pausu batzuk eman beharrean gaudela ikusten dugu. Horretarako lehenik eta behin, guraso horiek identifikatu behar ditugu, zerrenda egin, eta biltzeko deia egin ondoren, proiektu honen aurkezpenarekin, gure asmoen berri emateaz gain, beraien ekarpenak, parte hartzea sustatuko dugu. Lanketa hori beraien gustukoa eta eroso sentituko diren zerbait izan behar dela argi eduki arren, lanketa posible horiek zerrendatu eta definitu behar dugula argi ikusten dugu eta funtzionamendua zehaztea ere beharrezkoa deritzogu.

2.- Elkartearekin, zerbitzuaren inguruko harremana soilik duten gurasoak

Guraso hauek Txatxilipurdi Elkartearekiko harreman bakarra, ludoteka zerbitzua dute, beraz hauekin lana beste era batetan hasi behar dugula uste dugu, hurbilpen bat lortzea izango da lehenengo helburua beraz.





## 6. BI HELBURUAK UZTARTZEN: LANKETA ETA METODOLOGIA ORAIN ARTE BURUTUTAKOA ETA AURRERA BEGIRAKOA

### 6.1.- Guraso bilerak

Egitasmoaren planteamendu teorikoa zehaztu ondoren, guraso bilerak burutzeko deialdiak egiten hasi ginen.

Lehenik eta behin, Txatxilipurdi elkartearekin harremana izan duten eta izaten jarraitzen duten gurasoekin. Hauekin, egitasmoaren norabidea zuzentzeko ahalegina egin genuen (planteamendua azaldu, kritikak, ekarpenak, proposamenak,... jaso eta beraien ikuspegia eta iritzia zein den azaldu ziguten).

Bilera honek jarraipena izango du nahiz eta maiztasun zehatzik gabe.

Ludoteketako gurasoekin ere bilerak egin ditugu. Lehen kontaktua egin eta planteamendu osoa azaldu eta gero, ekintzetan parte hartzeko gonbitea luzatu diegu. Arrasaten hiru ludoteka daude: Santamaña, Okendo eta Usaetxe, hurrenez hurren. . Bilera hauen jarraipena gurasoen disonibilitatearen arberako maiztasunarekin burutuko ditugu (printzipioz, hilean behin).

Helburua, pixkanaka-pixkanaka guraso hauek ekintzen antolaketan eta partehartzean inplikatzeara da, euskarari protagonismoa emanez.

Bilerak hiru astean behin egitea erabaki dute gurasoek beraiek.

### 6.2.- Zapatuak ludoteketan

Guraso eta hurrek batera egiteko ekintza ezberdinak antolatzen hasi da hilean bi zapatutan, Okendoko ludotekan.

Orain arte; euskal kanta ta jolasen inguruko saioa eta masaje tailerra burutu dira.

Aurrera begira, eskaera egonez gero, ludoteka gehiagotara zabaldu eta maiztasun handiagoarekin egitea proposatuko litzateke.

Hauek dira aurreikusten diren ekintzak: mihiluze, kareta, karaokea, ipuinak, irrati-tailerra, jolasak, jolas trukea, Altxorraren bila, txangoak, muralgintza, jolas tradizionalak, jolas kooperatiboak, karteragintza, bideogintza, masaje tailerra, ginkana, hankapaloak, markogintza, bitxigintza, fimo, txapa tailerra, arteterapia, munduko holasak, txiste lehiaketa, txontxongiloak, sukaldaritza, logika, fieltro, argazkigintza, pegatinak, kandelagintza,...

Honetaz gain, gurasoek beraiek proposatutako ekintzak burutu ahal izateko bitartekoak eskainiko dira.

### **6.3.- Antzerkia ludoteketan**

HELBURUAK:

- 1.-Euskara sustatzea
- 2.-Euskararen garrantziaz ohartaraztea.
- 3.-Gurasoek seme-alaben hizkuntza transmisioan duten garrantziaz ohartaraztea.
- 4.-Gurasoek seme-alaben aisialdian duten inplikazioaz ohartaraztea eta seme-alaben aisialdira gerturatzea

Esketx ezberdinak:

- gurasoek erderaz haurrek erderarazko joera dute, ondorioz, haur hori beste haurrekin elkartzean, gazteleraz hitz egin eta beste guztiak euskaraz hitz egiteko gazteleraz hitz egitera pasa dira.
- Gurasoek euskaraz hitz egiten diote haurrari baina beraien artean gazteleraz hitz egiten dute, ondorioz, haurrak hezitzaileari euskaraz zuzendu baina beraien artean erderaz
- Gurasoek euskaraz hitz egiten dute bai beraien artean nahiz haurrari ere, ondorioz, haurrek beraien artean euskaraz baina esamoldeak erderaz egiteko joera dute.
- Portugaldik edo Marruecos-etik haur bat etorri da eta ez daki ez euskaraz ezta gazteleraz ere, ezin da beste haurrekin komunikatu, egoera horren aurrean eskuhartze desberdinak antzetzu ditzakegu.
- Haur bakoitzak bere hizkuntzan hitz egin eta ezin elkarren artean komunikatu, hizkuntzaren eta bereziki euskararen garrantziaz ohartaraztea helburu.

### **6.4.- Gurasolanda**

Egitasmo honen helburua, haur eta gurasoak transmisioarekin lotura zuzena duten ekintzetan elkarrekin parte hartzea izango litzateke.

Jaialdi formatoa duen egitasmo honek, zenbait gune izango ditu:

- 1.- Ipuin-kontakteta gunea (bertan, euskarazko ipuinen garrantzia azaltzeaz gain, hauek modu egokian kontatzeko teknikak erakutsiko dira).
- 2.- Euskarazko abestien gunea (haurrak eta gurasoak elkarrekin kantuan aritzeko gunea).
- 3.- Sukaldaritza tailerra (euskarazko errezetak eskuragarri izango dira eta elkarrekin sukaldatzeko aukera egongo da).
- 4.- Teknologia berrien gunea (gurasoei teknologia berrien inguruko nondik-norakoak azalduko zaizkie; arriskuen prebentziorako gomendioak, web gune gomendagarrien aurkezpena, zalantzen argitzea,...).
- 5.- Hezkidetza Txokoa (hezkidetza helburu duten zenbait tailer eta jolas eskainiko dira).

7.- Karaokea (haur eta gurasoek, elkarrekin euskaraz abesteko aukera izango dute).

8.- Euskarazko jolasen gunea (aiton-amonek aintzinako jolasen azalpena emango diete haur eta gurasoei, ondoren jolasean aritzeko helburuarekin).

9.- Puzgarriak

10.- Balanzbikeak (kart ekologikoak)

## 7. ONDORIOAK

Aipatu bezala, Txatxilipurdiko helburu nagusirako bidean, hots, Arrasateko haur eta gazteengan euskararen erabilera sustatzerako bidean, hizkuntzaren transmisioan gurasoen papelak eragin zuzena du. Baina gurasoen presentziaren garrantzi hau bikoitza dela esan dezakegu Txatxilipurdiren kasuan, izan ere Elkarte bat garen einean eta gurasoak ere elkarteko parte diren einean, garrantzitsua iruditzen zaigu elkartean bertan gurasoak parte hartze aktibo izatea, gurasoen ahotsak ere presentzia edukitzea. Gainera elkartearen babes garrantzitsua izan ahal dira gurasoak eta aportatzeko asko dutela ziur gaude.

Transmisioaren gaia lantzen hasi eta gurasoak elkartera hurbiltzeko lehenengo pausuak emateari begira proiektu honekin gurasoentzat eta gurasoekin antolatutako ekintza proposamen bat luzatzen da. Epe luzerako erronka sendoak diren arren, ikasturte hontan frogan jartzen hasi gara eta datorren ikasturteari begirako planteamendua uda aurretik zehaztea aurreikusten da.